Lur, Ama Lur

Lurra ontzi zabal-zabal bat dela jotzen da, arima eta izaki mitologiko gehienen egoitza. Eguzkiren eta Ilargiren ama da. Altzoan hartzen ditu egunero, zeru goian ibilbidea egin eta gero; Eguzki gauez lur azpitik itzultzen da ekialdera, eta Ilargia egunez, hurrengo egunean berriro ekialdetik agertzeko.
Lurrak bere baitan altxorrak gordetzen ditu, animalia ahaltsuek zaindurik; besteak beste, aho-sudurretatik sua darien zezenek. Zenbait mendi eta leizetan idi-larru bat ezkutatuta dago, urrez betea; jeinu batek zaintzen du altxorra, eta inori ez dio uzten hara gerturatzen.
Leize eta zulo batzuk lur gaina eta lur azpia lotzen dituzte, eta lur azpian badira bideak mundua alderik alde zeharkatzeko; leizeetatik irteten dira lurpeko izakiak. Haietan ibiltzen da Herensuge, esate baterako, eta inguruetako lurretan triskantzak egiten ditu, non eta aldian behin ordaina eskaintzen ez zaion: neskatxa bat, bertan irensteko. Bide horietan barrena ibiltzen dira laminak ere, leize batetik bestera edo putzu batetik bestera.
Ama Lur, Eguzki eta Ilargiren ama; haren barruan mugitzen dira izaki mitologikoak, haren sabelean eskutatzen dira egunez Gauekoak.

La Tierra es un enorme receptáculo en el que moran las almas y la mayor parte de los seres mitológicos. Es la madre del Sol y de la Luna, quien las acoge en su seno tras su periplo diario por el cielo, para que lo continúen bajo tierra: el Sol por la noche y la Luna de día, de Occidente a Oriente, por donde asomarán de nuevo al día siguiente.
La Tierra, además, contiene tesoros escondidos y custodiados por animales poderosos, como toros que lanzan fuego por la boca y las narices. Hay montañas y cuevas que esconden un pellejo de buey lleno de oro, protegidos por un genio que no deja acercarse a nadie. Otras cavernas y simas comunican la superficie con el interior: son las puertas de los caminos subterráneos que cruzan el mundo a lo largo y ancho. Por ellos transitan los dragones (Herensuge) que asolan los territorios, a no ser que se les ofrezca una joven doncella como tributo periódico para aplacar sus deseos. También las lamias pasan a veces por debajo de la tierra, para viajar de cueva en cueva o de pozo en pozo.
Ama Lur es la Madre Tierra, en cuyo interior se mueven los seres mitológicos y en cuyo vientre se esconden de día los *gaueko*, los nocturnos.